

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Sorkuntzako lau egoitza deitu dituzte dantzako profesionalendako

DNA Sorkuntza 2019 apiriletik irailera bitartean egingen da Tuteran, Tafalla, Barañain, Lesaka eta Uharteko kultura gunetan

Astelehena, 2019.eko otsailak 18

Kulturako Zuzendaritza Nagusiak lau egoitza egiteko [deialdia](#) ireki du DNA Sorkuntza 2019 programaren barnean, Nafarroako dantza arloko profesionalendako.

DNA Sorkuntza 2019 gogoeta prozesu baten ondoren eta 2018an dantza sektorearekin egindako lan-saioen harira sortu da.

Dantzaren eta mugimenduaren artean Nafarroako sektore profesionala diruz laguntzeaz gain, programa berriaren helburu nagusia dantza garaikideko proiektuen sorrera eta ikerketa sustatzea da, baita publikoarekiko bitartekaritza lantzea ere, diziplina horien mesedeko ingurune positiboa sortzeko, ekimenean parte hartzen duten artisten arteko sormenezko komunitate espiritua bultzatzeaz gain. DNA Sorkuntzari jarraituko dio 2020an DNA Jaialdia, 2019an sortutako proiektuak barne hartuko dituen erakustaldi formatuaz landutakoa.

Egoitzan esparru hauetan egingen dira: Lesakako Harriondoa Kultur Etxea, Barañain Auditorioa, Tafalla Kulturgunea eta Uharteko Arte Garaikideko Zentroa. Esparru horien hautaketaren bidez, Nafarroan barna proiektua era orekuan hedatzen lagundu nahi da. Egoitzetarako proiektuek gutxienez 2 asteko iraupena eta gehienez 4 asteko iraupena izanen dute, eta 2019ko apirilatik irailera bitartean egingen dira. Halaber, publikoarekiko bitartekaritza programa aurkeztu beharko dute, eta egoitza aldia bukatu ondoren, egindako lanaren erakusketa egin beharko dute.

Aipaturiko lau egoitzez gain, Tuterako Gaztambide Antzokian ikusgai izanen da ATALAK 2.0 deritzon nazioarteko lankidetzako proiektua, formakuntza bukatua duten dantzari gazteen profesionalizazioa helburu duena. 2018an izandako alde aurreko esperientziaren ondoren, DNA Sorkuntza bazkide nagusizat sartuko da Biarrizko Malandain Balleta, Gasteizko Principal antzokia, Donostiako Victoria Eugenia antzokia eta Bilboko Azkuna Zentroa eta Donostiako Tabakalera zentroa partaide dituen ATALAK 2.0 proiektuan.

Deialdi honetarako proiektuak aurkezteko epea martxoaren 10ean



DNA Sorkuntza 2019rako deialdia Nafarroako dantza arloko profesionalendako.

bukatuko da. Deialdiaren oinarriak culturana Navarra.es webgunean kontsulta daitezke.